

## Basauriko Somatena. 1923-1925.

---

Erdi Aroko erakunde katalan bat zen Somatena. Herrietako milizia armatuz osatuta zegoen, eta ordena publikoa mantentzea zen bere zeregina.

Armen indarkeria baliatuta, 1923ko irailaren 13an boterea eskuratu zuen Miguel Primo de Rivera generalak (garai hartan Kataluniako kapitain jenerala zen). Handik gutxira, Primo de Riverak, 23/09/17ko Errege Dekretu bidez, Espainiako Somatén Armatuak ezarri zituen penintsula guztian, eta egitura garaikidea eman zien: eskualde militarrei eman zien milizia horiek antolatzeko ardura, eta eskualdeok, beren aldetik, Somaténaren komandante jeneralei eskuordetu zizkieten lan horiek. Horrela, bada, Somaténaren komandante jeneralek lanak zuzentzen zituzten, gobernadore zibil eta militarren bitartez. Gobernadore zibil horiek, batetik, alkateei jarraibideak helarazten zizkieten, milizian sartzearen gainean; eta bestetik, probintzia bakoitzean Somatena antolatzeko batzordeko kideak izendatzen zituzten.

Hortik jaio zen «Somatén Armado Nacional» izenekoa. Hogeita hiru urtetik gorako gizonezko *baliagarriek* zerrendaratu ahal zuten bertan, hain zuzen ere, «tatxarik gabeko moralitadedunek, bizi ziren herrietan lan egiten zutenek».

Somatenistek armak zituzten —Eskualdeko Kapitaintzak ematen zizkien— Guardia Zibilaren kuarteletan. Gainera, Erregimenaren konfidantzazkoek arma laburretarako lizentzia ere izaten zuten. Somatenistek ezin zuten bakarka jardun, baina *larrialdirik* gertatuz gero, guardia zibil batekin osatzen zuten bikotekoa. «Somatenes Armados» bazkide txartela izaten zuten somatenistek, argazki eta guzti. Barrualdean, Araudiaren zati hauxe zegoen:

*«1. artikulua. Somatena gizon zintzoen elkarte da. Bere xedea da herrialdeko bakea zaintzea; norbanakoak eta jabetzak banan-banan zein taldean defendatzea; legeak betearaztea eta bertan ezarritako aginteak errespetatu araztea; eta delitugileak zelatatu eta atxilotzea..»*

*10. artikulua. Armak bakar-bakarrik erabiliko dira Araudi honen 1. artikuluan jasotako xedeetarako.*

*13. artikulua. Kaboak eta azpikaboak izango dira Somatén buruak beren mugapean, bai beren kideen artean, baita guardia zibilen artean. Ordea, lan-orduetatik kanpo agente horiei ezingo diete eskatu beren mende jartzeko edota inolako eginkizunik betetzeko.*

*14. artikulua. Guardia Zibilak hala eskatuta ariko dira somatenistak. Bestela, horien agindurik jabe jardun ahal izango dute, bakar-bakarrik, alarma-kasuetan edota ordena publikoa larriki urratzen den egoeretan, gaizkileak, kriminalak edo pertsona susmagarriak zelatatu eta hatzemateko, eta ordena publikoa berrezartzeko.*

*20. artikulua. Adorearen eta seriotasunaren seinale da Somatenerako izendatuta izatea eta bere intsigniak eramatea. Ohorea da izendatuta izatea, zeregin arriskutsu eta neketsua dutelako somatenistek. Hartara, somatenistek men egin beharko diete udal ordenantzei, poliziaren araudiei eta horien parekoei.»*

Jarduneko somatenistak agentetzat hartzen zituen jendeak; eta gerra egoeretan, berriz, «Fuerza Armada»ko kideatzat.

Baskongadak (izen hori zeukaten garai hartan) VI. Eskualde Militarrean zeuden, eta 1923ko urrian hasi ziren bertako Somatena antolatzen. Horretarako, Burgosen, VI. Eskualde Militarreko hiriburuan, batu ziren eskualde horretako probintzia guztietako antolaketa-batzorde guztiak: Arabakoa, Gipuzkoakoa, Bizkaikoa, Nafarroakoa, Burgosekoa, Logroñokoa, Palentziakoa eta Santanderrekoa. Mariano Moreno Álvarez VI. Eskualde Militarreko komandante generala izan zen bilerako burua.

1923ko urriaren 9an, Moreno Álvarez jaunak errekerimendua bidali zion Basauriko alkate konstituzionalari, José Goyarrola Pereari, herrian Somaténa antolatu zezan. Alkateak, 23/10/14an, gaiari buruzko Ediktua jarri zuen Arizgoitiko udaletxeko atarian, eta han utzi zuen 24/01/05era arte. Geroxeago, 1924ko otsailaren 11n, Udalak Bizkaiko Gobernu Zibilarren idatzia jaso zuen, Somaténen komandante jeneralak tokiko agintariei zuzendutako zirkularra helarazteko; idatzi hartan, Somaténa antolatzeko agindua ematen zitzaien tokiko agintariei. Urte bereko martxoaren 15ean, berriz, Bizkaiko Somaténéko komandante laguntzailea zen José Martínez Salgadoren «Beso la mano» (*BLM*, gaur egungo «Saluda»ren parekoa) bat jaso zuen Udalak, VI. Eskualdeko Somaténaren Aldizkari Ofizialean izena emateko eskatzeko; halaxe egitea xedatu zuen Udalbatzak, 24/03/21ean egindako osoko bilkuran.

Hortxe amaitu zen Basauriko Udalak Primo de Riveraren Somaténa eratzeko izapidetutako administrazio espedientea. Itxura batean, erakunde horrek ez zuen oihartzun handirik izan herritarren artean (gehien-gehienak langile-klasekoak ziren).

Hala eta guztiz, Bizkaiko Somaténaren komandante Barandiaran jaunak hala eskatuta, 1925eko uztailan Nazioa goraiatzeko ekitaldia burutu zuten Basauriko Alfontso XIII plazan (gaur egun, Arizgoitiko plaza). Desfilea eta aire zabaleko meza egin zuten San Faustoko Elizan, eta Somaténaren eta Guardia Zibilarren banderak bedeinkatu zituzten, Antonio Fernández Maltrana alkatea, agintari zibilak eta militarrek, eta banderen amabitiak bertan zirela. 25/07/15eko *Noticiero Bilbaínok* eta *ABCk* horren guztiaren berri eman zuten, eta Udalaren argazki-artxiboan ere, erreportaje zabala dago.

Argazkiak aztertzen jarrita, ikusi daiteke Basauriko Somaténaren ustezko bandera bedeinkatua, Bilboko Basurtuko Barrutikoa dela, izatez. Horrek agerian uzten du erakundeak herritarrengandik oso babes txikia jaso zuela; izan ere, herritar gehienek, langile-klasekoak izaki, mesfidantzaz begiratzen zioten Somaténari.

1930ean Primo de Riveraren diktadura amaitu zen, eta desagertu egin zen Somaténa. Gero, Bigarren Errepublika aldarrikatu ostean, erakundea desagertu egin zen nazio mailan ere.

